

MESEDETA KO LEKAIMEAK: MENDE BETE ZUMARRAGAN

·Zuek bai jakin!: Jose Ignacio Otano ·Erreportajea: Senegaldarrak euskaraz ·Izerdi patsetan: Iñaki Urdangarin ·Boteprontoan: Marijo Etxeberria

# Herri Aldizkaria Otamotz

2008ko  
azaroa  
141. alea



Herri Aldizkaria  
**Otamotz.com**

Albisteak, bideoak, argazki bildumak, gida, agenda,  
inkestak, eztabaidagunea, entzungaiak...  
URRETXU ETA ZUMARRAGAKO ATARI DIGITALEAN  
BEHAR DUZUN GUZTIA AURKITUKO DUZU!



Construcciones

# MENDIOLA

Labeaga, 9- Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10  
20700 URRETXU (Gipuzkoa)  
E-mail: mendiola@cmendiola.com  
[www.cmendiola.com](http://www.cmendiola.com)

Etxebiziten  
eraikuntza

Industria  
pabilioiak

Urbanizazio  
lanak

Legazpiko Olazabal Institutuaren  
ondoan 6 chalet adosaturen  
eraikuntza berria

**Argitaratzailea:** Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldúa **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Iker Telletxea - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

## aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**  
Mesedetako lekaimeak: mendebete Zumarragan
- 12 Komikia / Egurra partitzen**
- 13 Zenbat buru, hainbat aburu**  
Zer dakizu mesedetako lekaimeei buruz?  
Harremanik izan al duzu beraiekin?
- 14 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 15 Gure gomendioa**
- 16 Klik eta klik**  
Jose Luis Garmendia
- 18 Zuek bai jakin!**  
Jose Ignacio Otano
- 22 Erreportajea**  
Senegaldarrak euskaraz
- 25 Argazki zaharra**
- 26 Izerdi patsetan**  
Iñaki Urdangarin
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Literatura**
- 30 Boteprontoan**  
Marijo Etxeberria



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du.

# Mesedetako lekaiameak: mende bete Zumarragan

*Mesedetako lekaiameek ia 100 urte daramatzate dagoeneko Zumarragan. Euren eliza eta adineko jendearekin egin duten lana aski ezagunak dira, baina inor gutxi daki bertako etxea estatuko garrantzitsuenetakoa dela. Mesedetakoek hiru probintzia dituzte estatuan eta horietako baten egoitza nagusia Zumarragakoa da. Beste biak Granadan eta Madrilen daude. Bestalde, probintziako arduraduna Sor Maria Pilar Gallego urretxuarra da. Gainera, bertako elizan beata izateko bidean dagoen Sor Isabel Lete osintxuarra dago hilobiratuta.*

Zumarragako lekaiameetako batzuk, euren elizan, kongregazioko sortzailearen argazkia atzean eta Sor Isabel Leteren hilobia alboan dituztela.  
Argazkia: Gotzon Aranburu.



Mesedetako lekaikeen kongregazioa Juan Neponucemo Zegrí y Moreno apaizak sortu zuen Malagan 1878an. Gizon hau dohatsua da egun eta santu izateko bidean da. Bere helburu nagusiak behartsuei laguntzea, garai hartako gizarteko desberdintasunei aurre egitea eta kristautasun falta gainditzea izan ziren.

Kongregazioa asko zabaldu zen denbora gutxian. 10 urte pasatu aurretik 50 erresidentzia zituzten penintsulan. Mojek eskoletan, ospitaletan eta asiloetan lan egiten zuten, besteak beste. 1883an Amerikara iritsi ziren, Txilera hain zuzen ere. Egund Europa, Latinoamerika, Afrika eta Asiako 18 herrialdetan daude. 1.185 lekaime dira guztira.

Euskal Herrian 23 komunitate dituzte: 12 Gipuzkoan, 6 Araban, 3 Nafarroan eta 2 Bizkaian. 1941tik gaurdaino 18 komunitate utzi dituzte. Horietako bat Legazpikoa da. Bertara 1937an heldu ziren, Patrizio Etxeberriak egund Santa Kruz erresidentzia den ospitale-egoitza ireki zuenean. Mojek 2001eko urtarrilean utzi zuten Legazpi. Azken urteotan bokazio falta dago eta horrek euren misioaren etorkizuna baldintzatzen du.

106 urte daramatzate dagoeneko Euskal Herrian lanean, 1892an heldu baitziren: Arrasatera hain zuzen ere. Bertan asilo lanak ere egiten zituen ospitale baten eta eskola baten ardura hartu zituzten. Ordurako hainbat lekaime euskaldun zeuden. Izan ere, urte batzuk lehenago, Zegrík Malagako katedralean diru eske zegoen Zangotzako behargin batekin topo egin zuen. Bere herrira itzultzeko diruaz gain, kongregazioaren berri ematen zuen gutun bat eman zion parrokoarentzat. Handik hiru hilabetera lehen lau

euskaldunak heldu ziren Granadako nobiziatu. Euretako bat, Sor Filomena Gorraiz, kongregazioko bigarren nagusia izan zen.

Beste nagusi nafar batek, Sor Florencia Saezek, Zumarragako nobiziatuaren irekiera bultzatu zuen. Emakume hau bertan hil zen 1924an. Nobiziatua 1915ean ireki zen, baina mojak 1910ean heldu ziren. Bertan ospitale-asilo bat zegoen, behartsuei lagundu nahi zieten bi emakumeren esku, eta hauek lekaikeen laguntza jaso zuten.

Aipatutako bi emakumeek ez zuten behar bezalako medikuntza zerbitzua eskaintzeko baliabiderik eta konponbidea

## *Nobiziatua estreinatu*

## *zuten bederatz*

## *gazteetako bat Fermina*

## *Paternain zumarragarra*

## *izan zen*

Silverio Garmendia mediku zumarragarra eskaini zuen. Erretiratu ondoren jaioterrira itzuli zen eta bere ondasunak asiloari eman zizkion. Bertan buru-belarri lan egingo zuen jendea ere behar zen eta egokiena lekaikeei deitzea zela pentsatu zen. Hala, mesedetakoak heldu ziren.

Garai hartako nobiziatu bakarra Granadan zegoen, baina kongregazioko atea jotzen zuten neska asko eta asko penintsula iparraldekoak ziren. Sor Margarita Uribealgo zumarragarra, adibidez. Hori dela eta, Florencia Saez

nagusiak penintsula iparraldean beste nobiziatu bat irekitzea erabaki zuen. “Granadako nobiziatuak bi arazo ditu: bertako klima ez da ona Euskadiko eta Nafarroako gure gazteentzat eta gainera gure kongregazioak sakrifizio handia egin behar du horrenbeste jende urtean hiritan edo lautan Espainiako alde batetik bestera mugitzeko”, aipatu zuen.

Hasieran Nafarroako Alkoz herria hautatu zuen, baina Zumarraga bisitatu zuenean hau iruditu zitzaion tokirik egokiena. Asilo ondoko lurra erosi zen bertan eraikin berria egiteko.

Lau lagun jarri izendatu zituen egitasmoaren arduradun: Antonio Amundarain eta Andres Olaetxea apaizak, asiloko lekaike-nagusia eta Luisa Elozegi, Silverio Garmendia medikuaren alarguna. Azken honek gastuez arduratuko zela agindu zuen. Apaizek obraren ardura hartu zuten eta asiloko lekaime-nagusiak lanen berri ematen zion Florencia Saezi.

Lursail hartan garia zegoen eta zatitxo bat hala utzi zuten, inaugurazio egunean bedeinkatuko zen ogia egiteko. 1914ko maiatzaren 15ean eman zitzaion hasiera egitasmoari, meza batekin. Bertara langileak ere joan ziren.

Halako lanek buruhauste asko sortzen dituzte eta honako honetan ere hala izan zen. Obra hasi eta hilabete eta erdira Udalak geldiarazi egin zuen, eraikin berria hilerritik gertuegi zegoela eta. Bi apaizetako batek alkatearekin hitz egin zuen, baina ez zuen nahi zuena lortu eta gobernadorearengana jo zuen. Lanak berehala berrabiatu ziren.

Handik gutxira, arazoak sortu ziren berriro. Luisa Elozegik komentu batera erretiratzea erabaki zuen eta bere senarrak

Sor Maria Pilar Gallego eta Sor Rosario Saralegi, Ondarra arkitektuak eurentzat egindako liburutegian.



utzitako ondasunen zati bat dote bezala eman zuen eta bestea nobiziatuaren eraikuntzaz arduratzen ari ziren apaizei utzi zien. Elozegi adineko emakumea zen dagoeneko, ez zuen bizimodu berrira egokitzea lortu eta atzera egin zuen. Hori dela eta, berriro dirua behar zuen. Apaizei senarrak utzitako ondasunen gaineko eskumena kendu zien eta hala nobiziatua egiteko behar zen dirua galdu zen.

Lanak Carmen Garmendiaren laguntzari esker berrabiarazi ziren. Emakume hau Silverio Garmendiaren arreba eta, beraz, Luisa Elosegiren koinata zen. 1915eko martxoaren 19a aukeratu zen inauguraziorako, baina hirugarren arazo bat sortu zen: Udalak eritasun kutsagarrientzako ospitalea egiteko eskatu zuen, asiloak eskaleak hartzen baitzituen. Bertan ez zegoen toki aproposik eta azkenean

Urretxun egin zen. Hala, inaugurazio eguna mantendu ahal izan zen. Bederatzi nobiziarekin hasi ziren. Tartean Fermina Paternain zumarragarra zegoen, aurrerago ama Gabina bezala ezagutuko zena. Nobiziatuko lehen arduraduna Maria Aspe bergararra izan zen. Gerra osteko urteetan kongregazioko nagusia izan zen eta Zumarragan hil zen 1956an. Bertatik nobizia asko pasatu dira. 28rekin hasi ziren, baina urtetik urtera gehiago ziren. 1921ean 106 heldu ziren. 1935etik 1977ra 1.109 gazte pasatu ziren herriko nobiziatutik. 1971n etengabeko beherakada hasi zen eta 1977an nobiziatua Gasteizera eraman zen.

Ordutik eraikina mesedetako lekameen geriatikoa da. Bestalde, kongregazioak hiru probintzia ditu estatuan eta horietako baten gobernuaren egoitza Zumarragan

dago. Probintziako burua Sor Maria Pilar Gallego urretxuarra da. Bertako etxea oso garrantzitsua izan da beti eta, hala, toki batzuetan lekaimeak Zumarragako mesedetakoak bezala ezagunak dira.

Baina mesedetakoek, mojak prestatzeaz gain, herriarentzat ere lan egin dute. Aipatu bezala, asiloan aritzeko etorri ziren herrira eta 98 urte daramatzate zeregin horretan. Bestalde, 1966tik 1983ra eskolak eman zituzten: euren etxean bertan eta lorategian jarritako txabola batzuetan. Hezkuntza erreforma heltzarekin, mojek lan hau utzi zuten.

Bestalde, beraien elizan makina bat lagun ezkondu dira eta Goiargi abesbatzak kontzertua eskaintzen du urtero bertan. Eliza hau, nobiziatua bezala, Florencia Saezen ekimenez eraiki zen. Obrak hasi aurretik hil zen. Lehen harria 1927an jarri zen, baina 1929ko irailaren 8an inauguratu zen. Izan ere, zimenduak egiten hasi behar zirenean tunel batekin topo egin zuten eta horrek obra geldiarazi zuen. Eliza ezin izan zen aurreikusitako tokian eraiki.

Mesedetakoek eliza urretxuar eta zumarragar gehienek ezagutzen duten eraikin xumea da, baina askok ez dute jakingo beharbada bertan dohatsu izateko bidean den lekaime baten hilobia dagoela: Sor Isabel Leterena.

Emakume hau Bergarako Osintxu auzoan jaio zen 1913an eta 1929an Zumarragako nobiziatua heldu zen. 1931tik aurrera tuberkulosiak jota zeudenentzako ospitaletan lan egin zuen eta 1939an bere burua Jainkoari eskaini zion. Handik bi hilabetera gaizki sentitu zen eta tuberkulosia zuela ikusi zuten. 1941eko urrian hil zen.

## Sor Maria Pilar Gallego: “Probintziako azken lekaimea izango da Zumarragako etxeko argia itzaliko duena!”

Sor Maria Pilar Gallego eta Sor Rosario Saralegi Ondarra arkitektuak diseinatutako kaperan.



Sor Maria Pilar Gallego urretxuarra probintziako burua da. Zamoran jaio zen, baina bere aita lanera etorri zen, Madayara, eta 11 urte dituenetik hemen bizi da. Nobiziatua 1974an hasi zuen eta Zumarragan egin zuen, noski. Bere taldea izan zen hemen egin zuen azkena.

### Noize eta nolatan erabaki zenuen moja izatea?

Ikasketak Zelai Arizti ikastetxean egin nituen eta 15 urterekin Badiola orrazi lantegian lanean hasi nintzen. Betidanik gizarte gaiekiko interesa izan dut eta Gabonetan zaharren egoitzara joaten nintzen Badiola anaien oparia eramatera. Zaharren egoitzak nire arreta pizten zuen. Besteen mesedetan zer edo zer egin nahi nuen, baina banekien bakarrik ez nuela

ezer lortuko. Hori dela eta, Urretxuko mojengana jo nuen. Ez genuen elkar uler-tu eta gurutzeko alabengana joan nintzen, baina hezkuntza alorrean lan egiten zuten. Azkenean nobiziatua etorri nintzen. Joste-eskolak ematen zituzten eta amak bidali ninduen ikastera. Sor Dolores Alustizak ireki zidan atea eta Sor Lucia Anduagarengan bidali ninduen. Eurak bezalakoa izan nahi nuela erabaki nuen. Egia esan, ongia egin nahi nuen eta denetik egiten zuen kongregazioa toki egokia zela iruditu zitzaidan. 20 urterekin orrazi lantegia utzi eta nobiziatuan sartu nintzen.

### Laguntzeko borondate irmoa zenuen.

Ez nuen bizitza osoa orraziak paketeetan sartzan eman nahi. Zer edo zer gehiago egin nahi nuen. Besteen mesedetan lan

egin nahi nuen eta nobiziatua etorri nintzenean bokazioa beste gauza bat zela ikusi nuen. Konturatu nintzenerako, Jesukristo indar handiz sartu zen nire bizitzan. Bere deia, bizitza Jainkoari ematea... zer diren ezagutu nuen. Prozesua izan zen eta dena ikasi behar izan nuen, orrazi lantegi batetik etorri bainintzen. Zorionez, hezitzaile oso onak izan genituen. 24 urterekin egin nituen botoak, ilusio handiarekin, baina oraindik ez nekien ondo bizitza erlijiosoa zer den. Hori urteekin ikasten da, egunetik egunera: bokazioa bizitzea zer den, Jainkoak deitua sentitzea...

### Nondik nora ibili zara?

Arrasatera joan nintzen eta gero Iruñako San Fermin ospitalera. Erizaintza ikasi nuen bertan. Ondoren Frantziara joan nintzen, Lyon ondoko nekazal gune bateko ospitalera. Gasteizera itzuli nintzen eta bertan Teologia ikastea proposatu zidaten. Bertako zaharren egoitzan lan egin nuen. Handik Zumarragara etorri nintzen. Probintziako gobernuko kide nintzen eta geriatría eta osasun alorraz arduratu nintzen. Ondoren Angolara bidali ninduten: bertako nobiziatuan hezitzaile lana egin nuen. Handik bost hilabetera familian arazo larri bat izan nuen eta itzuli egin nintzen.

### Egun probintziako arduraduna zara.

Probintziako lana koordinatzen dut eta misioa suspertzen saiatzen naiz. Probintzia honetan 24 komunitate eta 248 lekaime ditugu: Gipuzkoa, Nafarroa, Araba, Bizkaia, Logroño, Santander,

Aragoi eta Bartzelonan gaude. Bost lagun arduratzen gara eremu honetako lanaz. Askok bidaiatu beharra dut.

### **Zein da zuen batzuek besteko adina?**

70 urtekoa da. Ez dugu gazterik. Hala, Zumarragako nobiziatua zaharren egoitza bilakatu da. 15 urte pasa dira azkenekoz gipuzkoar batek mesedetako lekamea izatea erabaki zuenetik.

### **Hori izango da Zumarragako nobiziatua itxi izanaren arrazoia.**

Gasteizera joan ginen, bertan hezkuntza eskaintza eskuragarriago baitago. Gure garaian Arantzazuko fraideak, pasiotarrak... etortzen ziren eskolak ematera, baina lauzpabost nobizia bakarrik gelditu ziren eta ez zuen merezi. Gainera, etxe hau 100 lagunentzako egin zen eta handi gelditu zen.

### **Zer egiten duzue egun Zumarragan?**

Adineko lekameen komunitatea dugu eta eraikina geriatriko modukoa da. Horretarako egokitu egin dugu. Bigarren solairuan, berriz, probintzia mailako gobernua egoitza dago. 27 lagun bizi gara bertan eta elkar zaintzen dugu. Bestalde, inguruko apaizak erretiroa egitera etortzen dira, formazio topaketak antolatzen dira... Izan ere, Zumarragako probintziako eraikinik handiena da. Herritarrei begira egiten dugun lanari dagokionez, gutako batzuk parrokian laguntzen dugu katekesia ematen, beste batek Caritasen lan egiten du, lan egiteko adinean dauden bik geriatrikoan lan egiten dute... Geriatriko berriko kudeatzaileek lekameak adinekoentzat egonkortasun eta segurtasun erreferentzia direla esan zuten. Bestalde, elizan egunero eukaristia ematen da eta gure etxeak ateak zabalik daude. Gure elizan jende

asko ezkontzen da eta kontzertuak ematen dira. Egur asko duenez, akustika ona du. Gure lorategia ere oso estimatua da: eztei argazki asko ateratzen dira bertan.

### **Zuen arboletako fruta ere oso estimatua da. Haurrak lapurtzera etortzen al dira oraindik?**

Bai, bai... Madariak eta sagarrak eramatzen dituzte, baina pikua eta baratza ere baditugu.

### **Nola ikusten duzue etorkizuna? Gurutzetako alabek herria utzi zuten.**

Guk ere hainbat misio utzi behar izan ditugu, errelebo falta dela eta, baina Zumarragako ez dugu hain erraz utziko. Probintziako azken lekamea izango da etxe honetako argia itzaliko duena! Afrikan eta Latinoamerikan nobiziatuak ditugu, baina ezin ditugu gazteak gu zaintzera ekarri. Ezin ditugu euren herrialdeak uztera behartu. Ahal dugun bitartean adineko lekameak ahalik eta hobekien zaindu behar ditugu, gure familia baitira eta kongregazioa zutik mantendu baitute. Okerren daudenak Gasteizen eta hemen daude, eraikinak egokitu baititugu. Bestalde, lauzpabost laguneko komunitate txikiak mantendu nahi ditugu gizarte alorreko lanak egiteko. Izan ere, erretiro adinean dauden ahizpek ezin dute eskola, geriatriko eta ospitaletan lan egin.

### **Zuetako bati hemengo egoitzako argia itzaltzea tokatuko zaiola uste al duzue?**

Itxaropentsua naiz. Garai hau ez da beste batzuk baino okerragoa. Nire ustez egorak buelta emango du. Bizitza erlijiosoa aldatu egingo dela uste dugu. Dagoeneko komunitate txikiak ditugu eta ahizpa batzuk etxebizitzetan bizi dira. Zegriko lekame bakar bat dagoen bitartean kongregazioak aurrera egingo duela esaten zuen.

Nire egungo kezka adineko ahizpak zaintzeko tokia izatea da. Badugunez, aurrera! Gainontzeko arazoak ere gaindituko ditugu! Zegri abenturazalea izan zen eta gutako batzuk ere bai: kartzeletan, familia desegituratuekin... lan egiten ari dira.

### **Zer moduz moldatzen zarete Urretxu eta Zumarragako bizilagunekin?**

Geriatrikotik pasa diren ahizpek sekulako harremana dute bizilagunekin. Jendeak asko maite ditu. Bestalde, kontzertuetara jende asko etortzen da. Goiargi abesbatzakoak lagunak ditugu eta gure festetara etortzen dira abestera. Zegri ohoretsu izendatu zutenean, adibidez. Ezagutzen gaituztenek natural ikusten gaituzte. Egia esan, oso jatorrak gara! (barreak). Mesedetakoak irekiak gara. Nire ustez, Zegriko karitatea eta entrega irakatsi zizkigun, baina alaitasunez.


### **Festa kontuez ari garela, 2010ean zuen etorreraren mendeurrena beteko da. Zer edo zer antolatu behar al duzue?**

Egia esan, ez dugu horren inguruan pentsatu. Nobiziatuaren irekiera hartzen dugu aintzat, baina 1910ean heldu ginen. Hurrengo bileran aztertu beharko dugu.

### **Bukatzeko, Urretxun pasiotarrak eta Zumarragan mesedetakoak. Zer moduz harremana duzue?**

Eurak beltzez eta gu zuriz. Haiek Irimora joaten ziren eta gu, berriz, Antiora. Euren gazteak gurera etorri ohi ziren abestera eta arduradunak, nobizien aurrean, behe-ra begiratzeko esaten zien. Egia esan, beti izan dugu harreman ona eurekin. Bi kongregazioen arteko harremana ere ona da. Gure kapilauak dira, bai hemen eta bai Erroman. Gure etxe nagusia han dago. Gainera, Perun elkarrekin lan egiten dugu. Oso fidelak dira.







# UROLA

## ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91  
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61  
Leturiatarren eparantza, 2  
ZUMARRAGA

# MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.  
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU  
Golden plazoletan

centro óptico  
**Javier Arratibel**  
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako  
tentsioaren neurketa - Graduatutako  
eta eguzkitarako betaurrekoak -  
Lentilak - Termometroak eta  
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA  
☎ 943 72 54 84

## Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren  
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48  
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41  
Urretxu-Zumarraga  
www.egumendi.com  
egumendi@egumendi.com



Labeaga, 35 Urretxu ☎ 943 72 41 60



Secundino Esnaola, 16 B  
Tel: 943 72 16 63  
ZUMARRAGA



# SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak  
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38  
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU  
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

## Lorea

Pinturak - Etxeko apainketak  
Lurrindenda - Jostailuak

☎ 943 72 41 90  
☎ 615 75 33 28  
Fax: 943 03 79 88

Legazpi, 5 - Zumarraga

# PLAZAOLA

## ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA  
943 72 13 70



- Dietetika  
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52



Muntaia eta instalakuntza elektrikoak  
Enpresa mantenua  
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50  
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66  
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

## natural optics

### URRETXU

Lurdes Rodriguez Iparragirre, 1-Urretxu  
Optiko-optometrista ☎ 943 72 59 68  
urretxu@naturaloptics.com  
www.naturaloptics.com

## asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN  
ESKAINNTZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu  
943 72 59 22  
659 67 89 79



Mugitegi, 17 Tel. eta faxe 943 72 58 28  
URRETXU



Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19  
ZUMARRAGA


## PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO  
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU  
ERAGINKORRA  
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA  
ETA BEZEROARI ARRETA  
Argixao industrialdea, 55 pabiloia  
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)  
943 72 41 00  
administracion1@premank.com



Labeaga, 9. Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10  
20700 URRETXU (Gipuzkoa)  
E-mail: mendiola@mendiola.com  
www.cmendiola.com



Edergintza tratamenduak  
Depilazioak  
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU  
☎ 943 72 25 13



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura  
Mediku-homeopata kontsulta  
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

# BIONA

## AROTEGIA

Altzariak neurritara

☎ 943 72 02 55  
Erratzu, z/g URRETXU



alejandro albisua

☎ 943 72 52 22  
Soraluze, 6 - Zumarraga

Herri Aldizkaria  

# Otamotz


## TOKI APROPOSA DUZU HAUXE ZURE IRAGARKIA JARTZEKO

Iker Telletxea - 647 319 757 - beasain@iragarri.net



## egurra partitzen

Jon Torner  
Jon Ormazabal



## Joan Goierri Garaira!!!

Herriko bertsolari bati maileguan hartu diogu izenburua, herriko beste bertsolari bati eta bere tropa tronpatuari buruz hitz egiteko. Aurreko batean Goierri Garaia atletismo taldeak antolatutako Zumarraga-Urretxuko I. Challengea-ri buruz hizketan hasi ginen. "Goierri Garaia" eta "challenge" terminoez batetik (gure ustez okerra bata eta flip-pau askoa bestea), eta gisa horretako (sasi)-konpetizioen izaeraz bestetik: Aizkorriko maratoia, Quebranta, Behobia, Hiru Handiak... Zein helburu bilatzen du jendeak? Erantzunetan ez gentozen guztiz bat, baina garbi dugu geroz eta fededun gehiago erakartzen dituzten erronka horien xedea ez dela soilik kirola eginez dibertitzea eta osasuntsu mantentzea.

Hainbat ikerketek diote abentura kirolak praktikatzen dituztenek eta drogazaleek bilatzen dituzten emozioak antzekoak direla. Eta abentura kirolak ez dira soilik bina bolamarisko eta bolakarne ardo-

rik gabe irenstea edo Santalutzitan ijito bati zaldia lapurtu eta ihes egiten saiatzea. Mendian korrika dabilzanak, himalayista nortfeizistak, eskiatzaile konpultsiboak, Quebrantan edo Behobian topera aritzen direnak, eskalatzaille intrepidoak... eurak ere zaku horretan sartzen dira. Gorputzaren mugetan jolas egin eta lortutako markak gainditu nahi dituzte. Plazerra ematen omen die horrek. Ikerlariek diotenez, egunerokotasuna saihestea dute helburu, eta konkista sentsazioa izatea. Gauza berriak probatzea gustuko dute, sakrifizio handiagoa eskatuko duten erronkei heltzea. Fruitu lehorrez elikatzen diren eta gizartearen onespina lortu duten kirolariek ari gara eh, ez drogazale lotsagarriez.

Horra aldea, lehenengoak heroien aldarera igo-tzen ditugu sarri, eta besteak erorien putzura botatzen ditugu. Zer, gauzak nahasten ari gara? "Mal de altura", badakizue.

## Zer dakizu mesedetako lekaimeei buruz?

### Harremanik izan al duzu beraiekin?




Felipa Salaberria



Zumarragako lekaimeekin sekula ez dut harremanik izan, Urretxun bizi bainaiz. Urretxuko mojekin, ordea, harremana izan dut. Beraien eskolara joan nintzen ikastera. Hori bai, Gabonetan mesedetakoek jaiotza jartzen zuten eta ikustera joaten ginen.

Agapito Molina



Badakit mesedetako lekaimeak non dauden, baina sekula ez naiz hara joan. Egia aitortu behar badut, atea naiz. Hori dela eta, ez dakit ezer beraiei buruz. Dena den, gauza bat aitortu behar dut: nire arreba moja da.

Santiago Garmendia



Mesedetakoena lana zaharrak eta gaixoak zaintzea izan da, batez ere. Arrasaten ere etxea dute, baina inguru honetako garrantzitsuena Zumarragakoa da. Bederatziurrenak egitera joan izan naiz bertara. Zaharren egoitzan ere izan dut harremanik beraiekin, gaixoren bat bisitatzera joan naizenean.

Toño Cuñado




Apenas dakit ezer beraiei buruz. Dena den, Leturiatarren auzokoa naiz eta nire adineko neska-mutilok mesedetakoena elizan egin genuen jaunartzea. Beraiei buruzko iritzirik ez dut, ordea. Ez onerako eta ezta txarrerako ere.

## Gaia: Gure futbol taldea

### Doinua: Pello Joxepe

Gorka Gaztañaga  
Andoni Oruesagasti




Futbol taldean sartu ginen ta  
jokoan azken bolada,  
oso gustora joaten gara  
entrenamentuetara.  
Baloia hartu eta jaurtitzen  
gustora ibiltzen gara,  
izerdi pila bota ostean  
guztiok pozik duxara.

Behin Lazkaora joan ginen ta  
partidan euria hasi,  
hango zelaia saiatu arren  
ezin ura iragazi.  
Azkenerako bilakatu zen  
igerilekua kasi,  
nahiz eta gogoz jokatzeko dugun  
ezin beti irabazi...

Nahiz badakigun futbol munduan  
talde apala garena,  
aurrerantzean ere emango  
dugu daukagun onena.  
Ez du ajolik gure taldea  
sailkatu arren azkena,  
gure arteko giro aparta  
baita garrantzitsuena.

## iritziz iritzi

Gotzon Aranburu



### Memoria historikoa

Gertaera historikoei dagokienez, egia osoa jakitea da onena, nire ustez. Gero, gizarte bakoitzak erabakiko du dakiena gogoratu nahi duen edo ahaztea nahiago duen; tristea zera da, ez jakiteagatik ahaztera kondenatuta egotea. Ondoko hauek 1936ko urrian, beren etxeetan atxilotu ondoren afusilatutako urretxuar eta zumarragarrak dira:

Jose Becerra, 19 urtekoa. Angel Zabaleta, 19 urtekoa. Angel Belaustegi, 20 urtekoa. Hilarion Arzelus, 27 urtekoa. Benantzio Eguren, 32 urtekoa. Alfonso Orcajo, 36 urtekoa. Francisco Pompeyo, 40 urtekoa, hiru seme alaben aita. Hilario Gabilondo, 42 urtekoa, bi seme-alaben aita. Hilario Aranburu, 61 urtekoa, zazpi seme alaben aita.


Ondoko hauek ere afusilatu zituzten 1936-1938 tartean: Lodosan, Jose Francisco Maiora, 28 urtekoa. Donostian, Antonio Castillejos, 32 urtekoa. Bilbon, Jose Antonio Zabaleta, 28 urtekoa, eta Eduardo Lopez, 58 urtekoa eta bost seme alaben aita.

Eta beste hiru herritar kartzelan hil ziren (1938-1945), lan bortxatuak egiten ari zirela: Zaragozan, Antonio Arrizabalaga, 28 urtekoa. Galiziako Labacollan, Cirilo Areiztegi, 25 urtekoa. Cadizen, bederatzi urte preso zeramatzan Jose Arrizabalaga, 47 urtekoa.

Gehiago jakin nahi duenak, Antxiñe Mendizabalen liburua irakurtzea dauka.

In memoriam.

Oharra: urriko aleko liburu iruzkina Araiz Padronena zela jarri genuen, baina Xabi Lasak idatzi zuen.



David Elgea

Teks\*

David Elgeak 2001ean hasi zuen *Teks\** proiektua eta liburu batean argitara eman du. 90 argazkik osatzen dute muina. Horietan guztietan, errealitate eta fikzioaren arteko jokua proposatzen digu artistak. Irudiek gizakiak suntsitutako natura hondatua eskaintzen digute eta agerian uzten dituzte garapen iraunkorraren teoriaren kontraesanak. Lana bi zatitan bana daiteke. Lehenengoan artistak berak landutako

maketei ateratako argazkiak ikus daitezke. Bigarren zatian, maketak baztertu eta erreallitatea bera hartzen du oinarri gisa. Deskontestualizazioa lortzeko bidea oso bestelakoa da. Gizakiak sortutako teknologia suntsikorretaz baliatzen da: kotxeak, helikopteroak, tankeak... Liburua artista urretxuarraren Web orrian eros daiteke: [www.davidelguea.com](http://www.davidelguea.com).

Lutxiano

Petti

On

Bizitzaren zurrubiloak gutxigatik ez zuen Petti (Juan Luis Perez Mixelena) aurretik eraman. Beratarrak hiru diska kaleratu zituen 1999 eta 2002 artean eta gero beste bat partekatu zuen Anarirekin. Baina off-ean gelditu zen, argia ikusteko indarririk gabe. Piztu zen eta iaz *On* diska osatu zuen. Berak esana da, off-ean luzaroan egon zenez, *On* izena jarri ziola diskari, eta "ona delako ere bai". Eta halakoxea da.

Osoa. Serioa. Benetakoa. Rock-a du mui-  
nean, baina ez da rockaren adar batera mugatzen. Gitarrarekin batera biluztu eta *Hauskorrak* garelara dio, esaterako. *Bakardadea ehizan* kanta —diskoko onena nire ustez—, berriz, Country bizi batek janzten du. *Xorieri mintzo zen* bluesaren ereskia da dagoeneko. Aditu eta ondo gortetzeko modukoa da diska.

Igor Susaeta



Sidney Lumet

Antes que el diablo sepa que has muerto


Kontatzen duen istorioa dagoeneko ezaguna da: itxuraz ezin hobea dirudien lapurreta, gauzak ez dira nahi bezala gertatzen eta parte hartzaile guztiek erabat etsita eta hondoratuta bukatzen dute. Lumetek per-tsonaien erretratu psikologikoan jartzen du arreta guztia, piskanaka hauen alderdi zekenera eta ezkutuenaz azalduz. Deskribapen honen xehetasuna da filmaren gakoa. Andy eta Mark Hanson anaiak (Phillip Seymour

Hoffman eta Ethan Hawke) eta hauen aita (Albert Finney). Hirurek bere zikoizkeria eta zikintasuna azalduko dizkigute. Lumeten meriturik handiena ez da aktore onenengatik interpretazio onak lortzea, baizik eta limitatuak izan daitezkeen aktoreekin gauza bera lortzea. Zentzu honetan goraiatzekoa da Ethan Hawkeren lana. Baita Marisa Tomeirena ere.

ButaK 21 zineklub taldea







▼  
Udazkena

Jose Luis Garmendia

# Jose Ignacio Otano: Ez dago bera bezalakorik

*Jose Ignacio Otano zumarragarrak barru-barrutik bizi izan zuen 80ko hamarkadako gazte mugimendua eta garai hartako idealei eusten saiatu da beti. Gazteleku zaharrearantz gozatu eta lan egin zuen eta berriaren ere aski ezaguna da. Roker zaharrak ez direla sekula hiltzen esaten da eta bera da herrian dugun erakusle garbiena.*

## **Jende gutxi ezagutzen du zure izena.**

Batzuek Josina deitzen didate, baina gehienek Otano. Izengoiti itxura du, baina abizen nafarra da. Gogoratzeko erraza da. Eskola garaitik ezagutzen naute Otano bezala. Egia esan, Jose Ignacio izena ez zait asko gustatzen.

## **Zenbat urte dituzu?**

Uf... Azkenaldian pinpirin samar nabil eta neskei ez diet benetako adina esaten! Nahiago dut ez esan...

## **Non jaio zinen?**

Zumarragako Urola kalean jaio nintzen, baina etorkinen semea naiz. Nire aita nafarra zen eta nire ama errioxarra da. Aita Pitillasekoa zen, baina bere familia Nabaskues ingurukoa zen. Amaren familian judutarrak zeudela uste dut. Abizenetako bat Herrero da eta garai batean judutarrek egiten zuten lan hori. Gainera, ama Inestrillas del rio Alhama herrikoa da eta inguru hartan juduak izan ziren.

Jose Ignacio Otano, Zintzo-Mintzo elkartearen egoitza ondoan



**Zertan lan egiten zuen zure aitak?**

Zenbakiekin ondo moldatzen zen eta matematika berak irakatsi zidala gogoratzen dut. Biltegi bateko kontuak eraman zituen, baina lanpostu ziurra izateko Orbegozora joan zen peoi lana egitera. Lanean lehertu zuten eta han bertan bihotzekoak eman zion.

**Nola oroitzen duzu aita?**

Nik 15 urte nituenean hil zen, baina bihotzekoa bospasei urte lehenago izan zuen. Oso gaizki utzi zuen, baina indar handia erakutsi zuen eta buelta ematen jakin zuen. Irakurtzea asko gustatzen zitzaion eta horretan eman zituen azken urteak. Aitari hori zor diot: irakurtzeko zaletasuna. Oso harro nago horretaz. Ez zen gizon arrunta. Oinarrizko Hezkuntza Orokorra bukatu nuenean Julio Vernerren bilduma oparitu zidan.

**Amari buruz, zer esango zenuke?**

Pentsio negargarria gelditu zitzaion eta ikastolan garbiketa lanean hasi behar izan zuen. Orain bere garaian eman zidana itzultzen ari natzaio. Dagoeneko 80 urte ditu eta zaintza handia behar du. Ez dut anaia-arrebarik eta aita nik adin txarra nuenean hil zen. Nahi nuen guztia egin nuen eta ama asko sufriarazi nuen. Hanka sartu nuen, ikasketak utzi bainituen. La Sallen elektronika ikasten ari nintzen eta ikasle ona nintzen, baina uztea erabaki nuen.

**Zergatik utzi zenituen ikasketak?**

Inor baino azkarragoa nintzela uste nuen, adinaren kontuak... Dena kaka zaharra iruditzen zitzaidan, baina hori esatea oso erraza da. Alternatibak bilatu behar dira. Horixe bera esan nien duela gutxi gazte-txean irratia sortzen ari direnei: ez dela kritikatzeko erabili behar, erantzunak

eskaintzeko baizik. Beno, harira... Aitari gertatu zitzaiona ikusita ez nuen mekanikaz ezer jakin nahi eta elektronika ikastea erabaki nuen. Gainera, musika kontuak atsegin nituen. Hala ere, ikasketak utzi eta denetik egin behar izan nuen: lantxoak, zebrabideak margotu...

**Zer egiten zenuen diruarekin?**

Kontzertuetara joan, diskoak eta liburuak erosi... Talde pila bat ikusi ditut belodromoan: Eric Burdon, AC/DC, Ramones, Clash... Beranduago jazz gustatzen hasi zitzaidan eta astebete eman izan dut Gasteizen eta Donostian kontzertuak ikusten.

**Parranda zalea al zinen?**

Berandu hasi nintzen erretzen eta edaten: ikasketak utzi nituen garaian. Gauza berriekin mozkortu nintzen, baina ez naiz oso parranda zalea izan eta esko-

*“Dena kaka zaharra  
iruditzen zitzaidan,  
baina hori esatea oso  
erraza da. Alternatibak  
bilatu behar dira”*

lan ez nuen iskanbila sortzen. Arazo bakarra asko hitz egiten nuela zen, orain bezala. Bestalde, handia nintzenez, ez ziren nirekin sartzen.

**Zure belaunaldiko asko aurrekoen ohi-turak aldatzen saiatu zineten.**

Kontrakulturaren intelektualak ginen. Drogen eragina gogoratzen da, baina kanpotik beste gauza berri asko heldu

ziren eta pozik hartu genituen. Izan ere, diktaturak idortasuna ekarri zuen eta oraindik hori ordaintzen ari gara. Guk guztiarekin hautsi nahi genuen, baita hemen egiten zenarekin ere. Zenbaitentzat Rolling Stones bezalako taldeak entzutea euskal aberria traizionatzea zen. Espainiarekin ez genuen ezer jakin nahi, baina hemen eskaintzen zigutena ez zen askoz hobea. Pantxoa eta Peio eta antzekoez aspertuta geunden. Diktaduratik babesteko hemengoari bakarrik begiratzeko joera zegoen eta ez genuen hori nahi.

**Nola asetzen zenuten zuen berritasun egarria?**

Erromantizismoz hitz egiten ari naiz... Ez geunden egun guztian sormen lanean, e! Dena den, egonezina genuen eta musika, pintura, literatura... atsegin genituen. Jack Kerouac, William Burroughs eta enparauak atsegin genituen. Komikia ere gustuko genuen.

**Gaztelekuaren lehenengo urteak ezagutu al zenituen?**

Gaztelekua gure belaunaldiaren aurrekoek sortu zuten eta funtzionamendua bestelakoa zen. Ez ziren horren apurtzaileak. Gure aurretik arduraduna Miren Iturriotz izan zela gogoratzen dut. Bera izan zen drogazaleak pairatu zituen lehena. Garai hartan kutxarilak zulatzen zirela esaten da, jendeak droga sartzeko erabili ez zitzaion.

**Nola gogoratzen duzu heroinaren kontua?**

Kontsumitzaileen artean denetik zegoen. Batzuek plazer hutsez kontsumitzen zuten eta beste batzuek gauza berriak ezagutzeko gogoak, askatasun egarriak, eraman zituen horretara. Alkohola, auto-




Parisen, Juanjo Idiakezekin.

ak, futbola... ere droga dira. Kontua burua erabiltzea da eta horretarako hezkuntza garrantzitsua da.

### **Dena den, heroinak jende aparta eraman zuen aurretik.**

Bueno... noski! Heroina koadrila askotan sartu zen. Koadrila arruntetara gainera. Egun heroina marjinazioarekin lotzen da, baina garai hartan ez zen hala. Ezjakinak ginen eta hasieran dena oso polita izan zen: kontzertuak, festak, bidaiak... Baina halako batean amets polita zena izorratu egin zen. Heroinak sekulako degenerazioa ekarri zuen. Izan ere, mendera erortzen dena kabroi hutsa bihurtzen da eta bere kezka guztiak pikutara joaten dira. Hori gutxi balitz, aipatutako ezjakintasunak eraginda, xiringa berbera lagun ezberdinek erabiltzen zuten eta denek kutsatuta bukatu zuten. Hori izan zen okerreana. Heroinari dramatismoa kendu behar zaio: nik neuk probatu dut eta badakit mendean erortzeko arriskua dagoela,



Secundino Esnaola kaleko txaletetako batean, fotonobela baterako. Argazkia: Kike Vierbücher.

baina mediku askok bizitza osoa eman dute morfina hartzen.

### **Heroinarekin gertatzen ari zena ikusirik, alde egitea erabaki zenuen.**

Gainera, sekulako krisi ekonomikoa tokatu zitzaigun. Gauza eta toki berriak probatzeko gogoia nuen eta, 20 urterekin, Greziara joan nintzen. Izan ere, han lagunak nituen eta gainera oso toki erakargarria da. Kretan berotegiak egin zituzten bananak hazteko eta lan asko zegoen. Trenean joan nintzen Zumarragatik Greziaraino!

### **Zer moduz Grezian?**

Ondo, nahiz eta lana gogorra izan. Baina nekazaritza lana norbaitek egin behar du, e! Dena den, hemen baino atzeratuago zeuden oraindik. Gero Peloponesora joan nintzen eta obretan lan egin nuen. Greziara joan eta urtebetera-edo, Epidauro ikustera joan ginen eta pareta bat igotzen ari nintzela istripu bat izan nuen. Tibia txikitu nuen eta etxera etortzea erabaki nuen.

Zumarragako geltokian baserritar batzuek jaitsi ninduten trenetik! Urtebete eman nuen muletekin eta bi urte kosta zitzaidan berriro ongi ibiltzea. Denbora horretan guztian ez nuen inongo dirulaguntzarik izan eta amaren kontura bizi izan nintzen. Oso gaizki pasatu nuen.

### **Zer egin zenuen osatu zinenean?**

Kanpoan bizitzeari puntua hartu nion eta animatzaile turistiko ikastaroa egin nuen Ibizan. Lehenago bertan izana nintzen, Koldo Cadiernorekin. Hippy moduan joan ginen, baina ordurako zeharo aldatuta zegoen. Beno... esan bezala ikastaroa egitera joan nintzen eta oso gustura egon nintzen, baina ez nintzateke oporretara joango. Dena den, ligatzeko eta txortan egiteko toki aproposa da. Hemen sekulako errepre-sioa bizi genuen eta hango giroa gusturara hartu nuen. Grezian jada ligatzeko gai nintzela ikusi nuen eta konplexuak galdu nituen.

### **Zer moduz animatzaile lanean?**

Hasieran primeran. Lehen bi urteetan sei bat hilabete lan egin ondoren, beste hiru-tan langabezia ordaintzen ziguten. Diru horrekin urtea egiten nuen eta gainera bidaiatzeko denbora nuen. Hirugarren urtean langabeziaren kontua aldatu egin zuten eta gainera ordurako apur bat nazkatuta nengoan.

### **Zer egin zenuen ondoren?**

Nire moduan bizi zen jende asko ezagutu nuen, baina merkataritza arlokoak. Indiaz hitz egin zidaten eta 1990ean bertara joan nintzen, sei hilabeterako. Bi aldiz izan naiz bertan eta berriro joan nahi nuke. Ibizako fribolitateaz nazkatuta, Indiako izpiritualtasuna gustura hartu nuen. Erlijioaren aurkakoa izan naiz beti, baina budismoa bizi-

Indian, bertako emakume talde batekin dantzan.



tza filosofia da eta ez da proselitista. Dena den, mendebaldeko aspaldi ekin genion bertara joateari eta dagoeneko dezente kutsatu dugu.

#### **Halako batean, gaztelekuko ardura hartu zenuen.**

Ixteko zegoen. Instituzioei ez zaie interesatzen jendeak askatasunez pentsatzea eta drogen aitzakiarekin noiz itxiko zain ziren. Drogazaleak tokiaren jabe egin ziren eta egun batzuetan ez nuen batere dirurik ateratzen. Herrian droga zaleen biltokia zela zabaldu zen, baina gaztelekuaren izpiritua beste bat zen. Ni hura berreskuratzen saiatu nintzen. Horretarako gazte gutxi batzuen laguntza izan nuen. Hits&Fits taldeko gazteekin eskoletan gaztelekuaren berrindartzeari buruzko hitzaldiak eman nituela gogoratzen dut. Garai hartakoak izan ziren azken junkieak. Dezente kostatuz zaidan eurak menderatzea. Euren eskubideez hitz egiten zidaten, baina betebeharrez ez zuten ezer jakin nahi...

#### **Zenbat denbora egon zinen gazteleku-**

#### **ko barran?**

Bi urte pasatxo. Ordurako asanbladarik ez zegoen, baina jendea erakartzea lortu nuen eta garai bateko estatutuak berreskuratzen genituen. Lehen urtebetean asko sufritu nuen, ez nuen sosik ikusten... Dirua ikusten hasi nintzenean, estatutuak jarraituz, tabernaren ardura utzi behar izan nuen. Lekukoa Xabi Zabalok-eta hartu zuten.

#### **Zer egin duzu ordutik?**

Beste denboraldi bat eman nuen bidaiatzen, baina azkenean fabrika hasi beste erremediorik ez nuen izan. GSBko galdetegian eta forjan aritu nintzen. Lan fisikoak ez nau kezkatzen, baina bururako oso gogorra da. Bi urte eman ondoren, alde egin nuen. Sekula ez dut inorekin konpromisorik hartu eta nire erabakiek ez diote inori kalterik egin. Amari bai, beharbada, ez baitu nire bizimodua onartu. Industrian irabazitako diruarekin Istanbulera joan nintzen eta Senegalen ere izan naiz. Dirua izan dudana bakoitzean, bidaietan gastatu dut.

#### **Zer gehiagotan lan egin duzu?**

Mahats-bilketan, larrialdiko osasun-zerbitzuetan, geriatrikoan... Garai batean ikastaro asko egin nituen. Nire helburua boladaka lan egitea izan da eta horrek bere ondorio txarrak ere baditu. Egun langabezian nago berriro, 20 urte nitue-nean bezala.

#### **Dagoeneko ez dituzu 20 urte, baina adin hori dutenekin harremana duzu.**

Hala da. Izan ere, gaztelekua toki erakarria iruditu zait beti. Arruntasunetik at dagoen bakarra. Ez dut sekula siglarik jarraitu, baina gaztelekuzalea izan naiz beti. Gazteek begi onez ikusten nautela uste dut eta eurei laguntzen saiatzen naiz. Garai batean egin genituen aldizkariak eta pelikulak eman nizkien. Batzuetan koadrilakoek neska-mutilekin egoteko garaia pasatu zaidala esaten didate eta nik tabernek Carrefour diruditela erantzuten diet. Gainera, gazteekin egoteak gazte mantentzen laguntzen du.

#### **Zineklubeko kidea ere bazara.**

Aspaldiko kontua da. Arestik-eta jarri zuten abian eta gero guk berreskuratzen genituen. Hanka hautsita izan nuen garaian diru-iturri izan zen niretzat. Soldatxoa bat ematen zidaten zineklubaz arduratzearen truke.

#### **Aipatutako honen guztiaren ondorioz, herrian aski ezaguna zara. Pertsonaia ia.**

Nire pentsaerari fidela izaten saiatu naiz, baina haizearen kontra joatea ez dago ondo ikusita. Ezaguna naiz, nire izaerak horretan laguntzen dit, baina lan kontuan ez dut inongo zorterik izan. Zinez diot: lanpostua gustuko ez badut ere, nagoen tokian nire konpromisoa erabatekoa da.

# Guztiontzat eredu

*Azkenaldian albiste txarrak eta ezkortasuna nagusi dira, baina badaude oraindik itzaropena berpizten duten istorioak. Horietako bat Urretxuko gaztetxean aurki dezakegu. Herriko gazteak eta Senegaldik etorritakoak dira protagonistak.*



Urretxuar eta zumarragarrek euren etxeko ateak ireki dizkiete gazte afrikarrei eta azken hauek familiako kideak dira jada. Euren gauzak bertan uzten dituzte, futbol partidetan eta afarietan parte hartu dute eta, hori gutxi balitz, batzuk euskara eta gaztelera eskolak hartzen ari dira.

Senegaldarrak gauero pasatzen dira gaztetxetik, lanegun gogorraren ostean: euren lanabesak gordetzen dituzte, edari beroren bat edo freskagarriren bat hartzen dute eta Urretxu eta Zumarragako gazteekin solas egiten dute euren Sestaoko etxebizitzara itzuli aurretik. Astean behin Modu, Kabalo, Pape eta Elashkek euskara eta gaztelera eskolak hartzen dituzte, Zumarragako Udaleko euskara teknikaria den Aitor Lizarazuren eskutik.

Duela aste batzuk Lizarazurekin, Jon Ander Moratinosekin eta senegaldarrekin hitz egin genuen gaiari buruz. Etorkin senegaldarrak ez dira beti ordu berean itzultzen lanetik eta, itxaroten genituen bitartean, kafe bat hartu genuen biekin.

Bi zumarragarrek gazte afrikarrak duela lau bat urte ezagutu zituztela aipatu zuten. "Autoak hemen ondoan aparkatzen dituzte. Egun batean matxura izan zuten eta ezin ziren etxera itzuli. Hori dela eta, gaztetxean lo egitea eskaini genien. Orditik babesa eta lasai egoteko tokia eskaintzen dizkiegu. Bere garaian festa senegaldarra ere antolatu genuen".

Aitor Lizarazuk eta Jon Ander Moratinosek afrikarrek euren abegi ona eskertzen dutela uste dute. "Zintzoak, ongi heziak eta esker onekoak dira.

Guztion izenak ikasten saiatzen dira eta inguru honetan guztiok ondo hartu ditugula diote. Ez dute alkoholik edaten eta euretako oso gutxik erretzen dute. Ez dute inoren dirurik hartzen, baina kafesnea gustura hartzen dute", aipatu zuten zumarragarrek. Egun 20 bat gazte senegaldar pasatzen dira Urretxuko gaztetxetik.

Euretako lau euskara eta gaztelera eskolak hartzera animatu dira. "Gau

## *Gazte senegaldarrak gauero Urretxuko gaztetxetik pasatzen dira, Sestaora itzuli aurretik*

batean Moduk euskara ikasi nahi zuela esan zuen eta Aitor irakaslea dela aipatu genion", oroitzen du Jon Ander Moratinosek. Aitor Lizarazuk gustura asko eutsi zion erronkari. "Hemen ez dute inolako laguntzarik eta bizkortasunez jokatzeko ez badute oso zaila zaie aurrera egitea. Eskolak oso informalak dira eta helburua ulertarazteko, gehiago saltzeko eta lan berriak topatzeko adina ikastea da. Gainera, euretako bik ez dakite gure alfabetoa irakurtzen eta horretan ere irakatsi nahi diet", gehitzen du irakasleak.

Aitor Lizarazuk helburuak azaltzen zituen bitartean, bere lagun senegaldarrak heldu ziren. Bertan geunden guztioi agurtu ondoren, nahiz eta nekatuta

egon, Modu, Kabalo eta Pape goiko solairura igo ziren eskola jasotzeko asmoz. Hiru gazte afrikarrek euskaraz esaten zaien ia guztia ulertzen dutela eta hitz egitera ausartzen direla erakutsi zuten. "Oso gustura gaude Aitorrekin eta gaztetxeko gainontzeko guztiarekin. Euskara hizkuntza zaila da, baina nola edo hala hitz egiteko gai gara. Jendeak harriduraz begiratzen gaitu beregan euskaraz zuzentzen garenean eta batzuek guk lau urtetan eurek 30 urtetan baino gehiago ikasi dugula esaten dute", azaldu zuten. Euskarari esker euren salmentek gora egin dutela ere onartu zuten.

Gure hizkuntza nondik etorri diren eta zer moduz doakien azaltzeko ere lagun-garria zaie. "Euskal Herrira lan egitera eta bizitza aurrera ateratzera etorri ginen, Senegalen apenas baitago lanik. Gainera, gure herrialdetik irtetea eta beste toki batzuk ezagutzea gustuko dugu. Irteten ez denak, ez du ikasten", aipatu zuten.

Egun, Bizkaian bizi dira. "Sestaon bizi gara, baina egunero inguru honetara etortzen gara lanera. Astelehenetan bakarrik hartzen dugu atseden. Beti lanean gaude eta ez dugu neskalaguna izateko astirik. Hori dela eta, neskek astelehenetarako bakarrik bilatzen ditugu", amaitu zuten umorez.

Gazte senegaldarrak Urretxuko gaztetxean gustura sentitzen direla nabaria da. Eurek eta euren lagun urretxuar eta zumarragarrek etorkinen integrazioa jende askok uste baino errazagoa dela erakutsi dute: guztiok elkar ulertzeko benetako borondatea izatea besterik ez da behar.

# Otamotz.com atari digitaleko edukirik klikatuenak



## IRAKURRIENAK

1. Ijito ezkontza Urretxun.
2. Zumarragako ezker abertzalea udaletxetik kanpora.
3. 85 herritarrek amaitu dute Behobia-Donostia.
4. Arcelor-Mittalek 500 langile kaleratuko ditu.
5. Unai Lazkano da udaltzainburu berria Urretxun urritik.
6. Artiz auzoko babes ofizialeko etxeek badituzte jabeak.
7. Herritar batzuek Faustino Orbegozo geriatriko zaharra okupatu dute.
8. Antioko interpretazio zentroa egiteko ideien lehiaketaren alde bozkatu dute.
9. *Urrelur* izango da Urretxuko mineral eta fosilen museoaren izena.
10. Bi pertsona atxilotu eta 17 kilo speed atzeman dizkie poliziak.

## ALDIZKARIA

1. Mikel Lizarralde: gizonetzkoa, gaztea, euskalduna... eta bidentea (Elkarrizketa/140. alea).
2. Idoia Luzuriaga (Boteprontoan/140. alea).
3. Herriko ostatuak eta ostalariak (Hilabete honetako gaia/140. alea).

## AZKEN ARGAZKI-BILDUMAK

1. Antio: misterioa taula ginean.

## INKESTAK

**Babes ofizialeko etxebizitzak nahikoa al dira dagoen arazoa konpontzeko?**

-Ez: %87

-Bai: %13

**Non egiten dituzu erosketak normalean?**

-Herriko dendetan: %75

-Merkatal gune handietan: %20

-Hirian: %5

**Zer deritzozu hutsik dauden etxeak okupatzeari?**

-Ondo: %81

-Gaizki: %13





## 1958

*Fortuna mendi taldearen 18. martxa*

Hona hemen duela 50 urte Fortuna mendi taldearen 18. mendi martxan parte hartu zuten lau herritar: Jesus Etxeberria, Juan Mari Lete, Jesus Iturbe eta Juan Jose Andueza.



# Iñaki Urdangarin: Herriko txirrindularien talde burua

*Duela sei urtetik hona Iñaki Urdangarin zumarragarra da Goierri kirol elkarteko zikloturismo saileko ordezkaria. Urdangarinek lan handia egin du bi herriotako biztanleak bizikletan ibiltzera zaletzeko. Bereziki harro dago 'Z-Z' martxaren arrakastaz eta emakumeen taldea abian jarri izanaz.*

Iñaki Urdangarin, ezkerretara, Axun Aranbarri emaztearekin eta Amaia Bereziartu eta Iñaki Unanue lagunekin, Frantziako Aspin mendatean.



**Nolatan zaletu zinen txirrindularitzara?**

Umetatik naiz bizikleta zalea. Gorri koloreko bizikleta txikia nuen, GAC markakoa, eta Migel Lopez Legazpiren estatuari bueltak ematen nizkion. Nire aita ere oso zaletua zen eta beti bizikleta izan zuen. Baita nire lagunek ere. Agustin Albisuarekin eta besteekin mesedetakoan elizaraino joaten nintzen. Garai hartan ez zegoen oraindik eskailerarik plazan.

**Noiz eta nolatan hasi zinen Goierriko zikloturisten irteten?**

Martxa bat antolatu zuten eta bokadiloa Matximentan jatea erabaki zuten. Ni ere hara joan nintzen, lagun batekin, eta bertan elkar topo egin genuen. Errepideko bizikleta erosi berria nuen. Orduan ezagutu nuen Mikel Soraluze Pastas eta hurrengo urtean dagoeneko lizentzia atera nuen. Zikloturismo sailak 31 urte ditu eta nik 27 daramatzat bertan.

**Urte hauetan guztietan makina bat kilometro egingo zenituen.**

Urtero 3.000 bat egiten ditut. Urtean 70 bat aldiz irteten naiz. Sekula ez dut parte hartu taldekideen udan antolatzen duten txangoan, baina urtero Frantziako Tourrera joaten naiz lagunekin. 1985ean joan nintzen lehenengoz: Pedro Delgadok Luz Ardiden lortutako garai-penaren lekuko izan nintzen. Seat-Orbea taldearekin korritzen zuen. Bizikleta autoan eramaten dut beti eta behin bakarrik kale egin dut.

**Frantziako mendate asko ezagutuko dituzu, beraz.**

Beti Pirinioetara joaten naizenez, mendikate horretako mendate gehienak ezagutzen ditut. Autoa mendate azpian uzten dut, bizikletan igotzen dut, lasterketa ikusten dut eta etxera itzultzen naiz.

**Idolorik izan al duzu?**

Umetan Eddy Merckxen bizikleta zuria bezalakoa nahi nuela esaten nuen. Duela 10 bat urte lortu nuen, azkenean, nire lehen bizikleta zuria. Oraingoa arrosa eta beltza da, Jan Ullrichena bezalakoa.

**Zer eskaini dizute zikloturismoak eta Goierrik?**

Oso ondo pasatu dut Goierrikoekin. Ni hasi nintzenez derrigorrezkoa zen hamaiketakoa egiteko gelditzea. Taberna batzuk oso estimatuak dira zikloturisten artean eta eurretan beste herrietako lagunekin topo egiten dugu: Landan, Alegin...

*“Gorri koloreko bizikleta*

*txikia nuen, GAC*

*markakoa, eta Lopez*

*Legazpiren estatuari*

*bueltak ematen nizkion”*

Ogitarteko onak dituzte eta, garrantzitsuenak, azkar zerbitzatzen dituzte. Taldeko lagun batzuek karajilloa edan eta zigarroa erretzen dute! Zikloturismoaren izpiritua hori da, baina egun askok barratxoak eramaten dituzte eta ez dira ezertarako gelditzen. Denetik egon behar da eta... Gure taldean 195 federatu gara eta guztiok ezin ditugu gustu berberak izan, noski. Sei urtetan 125etik 195era pasako gara eta aurki 200 baino gehiago izango gara.

**Noiztik zara zikloturismo saileko arduraduna?**

25. urteurrena heldu zenean ordura arte lan egin zutenak omendu behar zirenez,

ekitaldia antolatuko zuen norbait behar zen. Horren ondoren hasi nintzen arduradun lanetan. Anton Rodriguez ordezkatu nuen. Ordura arte bera izan zen arduraduna, Pastas, Victor Charro, Victorio Velasco eta abarrekin.

**Zein izan da zure ekarpen handiena?**


Z-Z martxa antolatu dugu, emakumezkoen taldea abian jarri dugu, federatu kopuruak gora egin du... Oso giro ona dugula uste dut eta horri esker geroz eta gehiago gara. Z-Z martxaz eta nesken taldeaz bereziki harro nago. Aurtengo martxan 280 lagunek parte hartu dute eta neska bakarra izatetik 20 izatera pasatu gara. Gainera, datorren urtean 30 inguru izango ditugula uste dut. Lehen 25 urtetan bost bakarrik pasatu ziren! Bestalde, aurtengo Quebrantahuesos proba entzutetsuan bi taldek bakarrik aurkeztu dituzte guk baino partaide gehiago. Hau guztia ni arduraduna naizen bitartean gertatzen ari da eta hori oso pozgarria da. Gainera, mundu hau asko atsegin dut eta jendea bertara erakartzea lortzen ari naiz.

**Oraindik txirrindulari berrien bila irteten al zara kalera?**

Dagoeneko batzuk euren kabuz etortzen dira, baina oraindik bila irteten naiz. Z-Z proba kide berriak lortzeko baliatzen dut, familia askok parte hartzen baitute.

**Zeintzuk dira etorkizuneko erronkak?**

Mendiko bizikleta taldea sendotu nahi dugu eta baita martxa zikloturista bat antolatu ere. Proba hau iraileko azken asteburuan izango da, Urretxuko jaien ondoren. Larunbatean ohiko mendiko bizikleta martxa izango da eta igandean proba berria. Ez gara beldur, bazkide asko baikara eta laguntza eskatzen zaionean jendeak ondo erantzuten baitu.



Alex Areizaga

Informatika

### Doako antivirusa

Avast sarean doan deskargatu dezakegun antivirusa da. jadanik *Avast! 4 Home Edition* bertsioa dago eskura. Hasieran 60 egunez probatzeko deskargatu dezakegu eta erregistratu ondoren jada ordenagailuan instalatuta geratuko da. Behin erregistratuta, emailez lizentzia zenbaki bat igorriko digute eta hau 60 eguneko epea amaitzean sartu beharko dugu, automatikoki aterako zaigun kutxan. Ingelesez gain beste hizkuntza batzuetan ere eskura daiteke <http://www.avast.com/> helbidean.



Oihane Sudupe

Osasuna

### Jatorduak eta gure jarrera

Zenbait gaixotasunek gure dieta eta jatorduetan dugun jarrerarekin erlazio zuzena dutela jakina da. Elikagaiak osasuntsuak izateko eta energia emateko, guk hauen-ganako jarrera egokiak bereganatzea ezinbestekoa da (hautzaroa aipatzen da garai egokitza). Ospakizunetan mahai inguruan biltzen bagara ere, kezkatzen gaituzten egoerak eta pentsamenduak ingurukoekin konpartitzeko ere jatorduak aprobetsatzen ditugu askotan eta honek eragin negatiboa du. Jarraian zenbait aholku zerrendatu ditut, logikoak diruditen arren, zenbaitetan ohartu gabe ahaztu egiten ditugunak:

- 1.-Giro erlaxatuan burutu otorduak, presarik gabe, behar den denbora eskeiniz.
- 2.-Elikagaien kalitatea zaindu (garaiko produktuak ezagutzea interesgarria da nahiz eta gaur egun hainbat produktu urte osoan zehar izan eskura) jatorduak antolatu (zaporeak banandu).
- 3.-Distrazioak ekidin (telebista, aldizkari zein egunkariak, eztabaidak...)
- 4.-Erabat ez asetu.
- 5.-Elikagaiekiko izaera positiboa izan, beraien ezaugarriak ezagutzea interesgarria izan daiteke.

## Marcela: etxea

Ni Marcela naiz. Nire istorioa deserri bikoitzarena da, diktaduragatik Argentina utzi behar izan nuen 1976.ean; gaixotasunak eraginda berrogei urtetan zehar nire etxea izan den Horacio galdu dut. Jarraitu aurretik istorio honek ez duela eztizko amaierarik aitortuko dizut, istorio tristea da gurea. Hemendik aurrera zuk aukeratu: segi edo ez. Horaciok parkinsona du. Duela hamabi urte esan ziguten, nik ordurako banekien zerbait oker zegoela, jadanik bere behatzak dardar batean zebiltzan txanponak zenbaituko balituzte bezala, bera askotan konturatu ere ez zen egiten, ni bai.

Ni ez naiz sekula bueltatu Argentinara, Horacio behin baino gehiagotan joan da diktadura bukatu zenetik. Orain hiri hotz honetako apartamentuko leihotik begira nago eta parkinsonak bigarren erbestea ekarri didala badakit. Unibertsitatean ezagutu nuen sorbalda zabaleko gizona, zuhurtzia apur bat izan ez duen nire gizona galdu dudanean etorri zait bigarrena. Bere gorputza hor dago saloian, lotan, baina nire etxearen aztarna handirik ez da gelditzen han, jada.

Argentinak lotsa ematen zidan niri, horregatik ez nintzen inoiz Horaciorekin bueltatu. Lotsa nire betiko bizilaguna, itxuraz adeitsua zena, borrero bilakatuta ikusi nuela gogoratzeak. Eta beldurrez elikatutako gehiengoaren isiltasuna eta inpunitatea eta horrek guztiak utzi zituen errautsak eta ahanzturak eta isilpeko gorrotoak. Baina ez, ezin zaitut engainatu, Argentina niretzako mina ere izan da urte hauetan guztietan.

Sarraskia handiegia izan zen. Saiatu naiz galdutako lagunen aurpegiak ez ahazten, baina ez ditut gogoratzten, galdu ditut. Desagertutako zerraldorik gabeko aurpegi gehiegi dira eta dolua egiteko aukerarik ez dugu izan, istorio hauen guztien amaierak ezin izan ditugu gure azaletara josi.

Horacioren baitan neuronak bere garuneko sustantzia beltzaren bidezidorretan galtzen ari dira aspaldi, bere buruaz beste egiten dute behin eta berriro. Amildegira

saltoka dabilta atzean uzten dutenari erreparatu gabe. Atzean utzi dute Horacio zen hura eta orainera ekarri didate bere gorputza neuronon hilerri bat izango bailitz. Okerrena ez da hori, ordea, zailena bera bere gorputz indartsuaren gainbeheraren lekukoa izan dela da. Horaciok ez du burua galdu, kontzientea da, badaki preso dagoela.

Izaera aldatu zaio, ez da pertsona bera, gaixotasunak agintzen du bere baitan. Horaciok aspaldi ez du borroka egiteko gogorik, ulertzen dut, borroka antzua da berea. Ni, bien bitartean etxerik gabe gelditu naiz, zeharo abandonaturik; bera, bitartean, saloian dago lotan.

Gaixotasunak ekarri dit niri benetako erbestea. Parkinsonarekin haragizko, larruzko, gorputzeko, maitalearekiko erbestea ikutu dut. Dagoeneko ezin dut Horaciorekin apenas hitz egin, bere hitzak bakarkako dantzan dabilta eta sarritan bere hitz batek ondokoari ez dio zentzurik ematen, ezta aurrekoari ere. Ahotsa aldatu zaio, parkinsonaren ahotsa du. Hutsak dira hutsuneak. Horacioren gorputzeko atal bakoitza bere kasa dabil, erori egiten da, elkarrekin erortzen gara. Botikek ez dute hasieran bezala funtzionatzen eta dagoeneko gauza askorako ez da gai. Gaixotasuna da miseriarik handiena. Ezin du bakarrik pixik egin, zakilak ihes egiten dio eskuartetik. Neurona bakoitzaren desagertzea tragedia izan da gure bizitzatan.

Greziarrek tragos esaten zioten ahuntzek, sakrifikatu aurretik kantatzen zuten adioaren oihuari, hortik dator tragedia hitza. Ez Horaciok ezta nik ere, ez dugu oihurik egiten baina jakin badakigu antzerki honetako amaiera zein izango den eta aitortuko dizut, azkar amaitu dadin desiatzen dugu biok.

Orduan ni, etxerik gabe, Argentinara bueltatuko naiz.

Miriam Luki

### Marijo Etxeberria

*Marijo Etxeberria Ezkio-ltsasoko Santa Lutzi auzokoa da eta bertako eskolan ikasi zuen itxi zen arte. 10 urterekin Zumarragako Zelai Arizti ikastetxera joan zen eta gero institutura. Ondoren irakasle-ikasketak egin zituen Eskoriatzan. Arrasateko Udal Euskaltegian hasi zen lanean eta handik hiru urtera Urretxu-Zumarragakora etorri zen. Azaroan HABEK bera eta Mikel Lizarraga omendu ditu, euskaltegietan 25 urte daromatzen gainontzeko guztiekin batera. Ezkonduta dago eta bi seme-alaba ditu: Beñat eta Miren.*

#### **Zer izan nahi zenuen umetan?**

Beti gustatu zait jendearekin harremana eta beharbada horregatik hautatu nuen lanbide hau.

#### **Aisialdian zer egitea atsegin duzu?**

Zinera joatea, paseatzea eta irakurtzea.

#### **Bizitzeko toki bat?**

Zumarragan gustura nago, baina nire jaioterrria asko gustatzen zait. Ezkiokoa sentitzen naiz eta ama bertan bizi da.

#### **Zer diozu euskaltegiko lanaz?**

Gustukoa dut, baina ikasleak asko aldatu dira. Lehen jendeak euskaraz ikasi nahi zuen eta orain perfilen eta azterketan inguruan lan egiten dugu.

#### **Lankide bat?**

Mikel Lizarragak asko lagundu eta irakatsi digu. Oso berezia da guztiontzat. Maite Zalduarekin ere harreman berezia izan dut beti.

#### **Omenaldiko argazkietan Mikel eta zu lehendakariaren ondoan agertu zineten...**

Atzean jarri ginen eta gero aurrera pasatu gintuzten. Zumarragako kultur etxean erakusketa ireki duen Iñigo Arregiren eskultura bana eman ziguten.

#### **Nork hitz egiten du euskaraz bereziki ondo?**

ETBko esatarien artean Xabier Usabiaga gustatzen zait.

#### **Eta nork hitz egiten du trakets?**

Oraindik hainbat tokitan euskaraz hitz egiten ez duen jendearekin topo egiteak harritu egiten nau: ospitaletan, udaletxetan...

#### **Ilehortiak ala beltzaranak?**

Denak.



#### **Egindako azken oparia?**

Praka batzuk, alabari.

#### **Eta jasotakoa?**

Amak, eraztun bat.

#### **Data bat?**

Nire aita istripu batean hil zen eta data hori gerturaten denean beti gogoratzen naiz.

#### **Neska eta mutil izen bana?**

Izen motzak atsegin ditut.

#### **Zein egunkari irakurtzen duzu?**

Berria, Hitz, Noticias de Gipuzkoa, DV... Tokatzen direnak.

#### **Gustuko telebista saioa?**

ETBn *Horrelakoa da bizitza* ikusten dut. Besteetan telesailak.

#### **Bereziki gorroto duzuna?**

Kirol saioak ez zaizkit asko gustatzen.

#### **Pelikula bat?**

Azkena *Vicky Cristina Barcelona* ikusi dut. Gustatu zait.

#### **Liburu bat?**

Azkena Ruiz Zafonen *Marina* irakurri dut. Gustatu zait.

#### **Soinu bat?**

Musika zalea naiz, baina naturarekin lotutakoak nahiago ditut.

#### **Usain bat?**

Kafe egin berriarena.

#### **Janari bat?**

Pasta eta arroz zalea naiz.

#### **Ura ala...**

Ura. Janariarekin edariarekin baino gehiago gozatzen dut.

# PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

**GURE LANAK  
PREBENTZIOA  
DU HELBURU**



KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA  
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)

☎ 943 72 41 00

e-mail: administracion1@premank.com

## IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,  
INGURUMEN ETA  
LAN-ARRISKUEN ARLOKO  
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia

☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09

e-mail: irnasa@facilnet.net  
ZUMARRAGA



**Negu honetan,  
ahaztu hotza.**

**ESKAITZA  
PAREGABEA**

## Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erositasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzailerekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:  
**3.300€**  
(BEZ kanpo).

+

**KREDIGAS**  
finantziario berezia,  
instalazioa hileko kuota erositan  
finantzatzeko.

+

**570€**  
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziario berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25ekoa izango da (Credigas). Gaueko tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, barruko instalazioa egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 erradiadore (45 elementu) jartzeko. Promozio estandarren gaineko edozein aldaketa, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetaz baliatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAUrekin hornikuntza alta egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina  
[www.naturgasenergia.com](http://www.naturgasenergia.com)



**naturgas  
energia**